

[Eusk/Cast] JARDUN-en aurkezpena San Inazion

LA HAINE _ EUSKAL HERRIA :: 28/02/2021

JARDUN koordinadorak Bilboko aurkezpen zikloarekin jarraituta aurkezpena burutu du San Inazio auzoko Errondoko gaztetxean.

JARDUN koordinadora iraultzaileak bere proiektu politikoa, ideologia eta helburuak azaltzeko aurkezpena eraman du aurrera Bilboko San Inazio auzoan. Bertan, JARDUN-eko kideek antolatu, ziklo politiko berri bat ireki eta Euskal Herri Langileriaaren interesei erantzungo dion alternatiba eraikitzeko beharra aldarrikatu dute. Horregatik, independentzia eta sozialismoaren alde diharduten edo lan egiteko prest dauden norbanako eta kolektiboak batu eta koordinatzeko deia luzatu dute, izaera nazional eta lokaleko borroken uztartzearen beharra mahaigaineratzearekin batera. Horretarako, norberaren interesak eta egungo sektarismoa elikatzen duten ezinikusiak alboratu eta Euskal Herri Langilearen interesen alde aritzearen garrantzia azpimarratu dute.

Hurrengo hitzordua Basurtuko Gizarte Etxean izango da martxoaren 12an 18:00etan. Jada Deustun eta Alde Zaharrean hasi zen aurkezpen zikloari Santutxuko Karmelan jarriko diotelarik amaiera martxoaren 28an 12:00etan Bilbo osoari begira burutuko den aurkezpenean.

[Castellano]

La coordinadora JARDUN ha realizado una presentación en el gaztetxe Errondoko de San Ignacio siguiendo con su ciclo de presentaciones,.

La coordinadora revolucionaria JARDUN ha realizado una presentación en el barrio bilbaíno de San Ignacio donde ha explicado su proyecto político, ideología y objetivos. Los miembros de JARDUN han reivindicado la necesidad de organizarse, abrir un nuevo ciclo político y construir una alternativa que responda a los intereses del Pueblo Trabajador Vasco. Es por eso que han hecho un llamamiento a todos los individuos y colectivos que trabajan o tienen predisposición de trabajar a favor de la independencia y el socialismo a juntarse y coordinarse, haciendo especial hincapié en la necesidad de aunar las luchas de carácter local con las de carácter nacional. Para avanzar en esa dirección, han dejado claro que es necesario dejar los intereses personales y las desavenencias que alimentan el clima de sectarismo actual, puesto que lo primordial es trabajar a favor de los intereses del Pueblo Trabajador Vasco.

La siguiente cita del ciclo de presentaciones será en el centro cívico de Basurto el día 12 de marzo, a las 18:00. Esta cita será la continuación del ciclo que dió comienzo y siguió en el Casco Viejo y que culminará el día 28 de marzo a las 12:00 en Karmela en una presentación orientada a todo Bilbao.

https://www.lahaine.org/mm_ss_est_esp.php/eusk-cast-jardun-en-aurkezpena